



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Sopelako Udala

Obra Brigadarako Peoien lan-poltsa

Sopelako Udaleko Tokiko Gobernu-batzarrak, 2024ko otsailaren 2an egindako bileran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa: Sopelako obra-brigadako peoien lan-poltsa sortzeko deialdiko oinarriak onartzea.

Bigarrena: Deialdi hau eta bere akordio honekin batera doan oinarriak, oso-osorik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Sopelan, 2024ko otsailaren 19an.—Alkatea, Guruzne Carrasson Torrontegui

**OBRA-BRIGADAKO PEOIEN LAN-POLTSA SORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUA
ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Deialdi honen helburua da Obra Brigadako peaien lan-poltsa sortzea, eta horretara jo ahal izango da peaien kategoriako lan-kontratu finkoko langile titullarrak aldi batean lanean ez daudenean ordezkatzeko, lanpostu hutsak jabetzan bete artean betetzeko edo kasuan kasuko lan-beharrei erantzuteko.

Ordainsaria aldi baterako estaltzen den lanpostuari dagokiona izango da, eta, funtsean, hauexek izango dira bete beharreko eginkizunak:

- a) Brigadako ofizialei laguntza ematea honako lan hauek egiteko:
 - Udal-hilerriko hilobi, horma-hilobi eta panteoietan egin beharreko garbiketa, ehorzketak, desehorzketa eta hezur-hondarren antolamendua; eta espazio horiek zabaltzea eta ixtea.
 - Kirol-instalazioetako garbiketa-lanak eta mantentze-lan txikiak.
 - Zerbitzuko ibilgailuen mantentze-lanak, erabilera-baldintza onetan egon daitezkeen. Horretarako, beharrezko mantentze-lanak eta aldizkako azterketak egin behar dira, beharrezkoa denean kanpoko tailerrera joanda.
 - Esleitzen zaizkien udal-ibilgailuak gidatzea.
 - Udal-zerbitzuen ardura den lekuetan, lorazaintza-lanak egitea eta zuhaitzak inautzea.
 - Iturgintzako lanak: ur-banaketako eta saneamenduko udal-sareko hoditeria konpontzea.
 - Iturgintzako mekanika-lanak: hodiak muntatzea (akzesorioak, mekanismoak, balbulak...).
 - Sare berriak egin edo instalazioak eraberritzeko obra zibileko lan orokorrak: hormigoi armatuzko edo adreiluzko kutxetak eta putzuak, ur-biltegien hormen konponketa, ibai-pasabideetako enkofratuak eta hormigoi-lanak, bide-pasabideak, aire-zubiak, trenen pasabidea, biltegien zarpiatze-lana, ainguratze berezietako hormigoi-lanak eta abar.
 - Instalazio eta lokal guztien garbiketa eta mantentze-lanak.
 - Arkuzko soldadurako lanak, material ugarietarako.
 - Pieza bereziak krokis bidez egiteko, burdin eta galdaragintza-lana; piezak ebaki, doitu eta zulatu.
 - Honako elementuak egitea: tailer eta biltegietarako elementu metalikoak; metalezko hesiak eta itxiturak; ibai, hondartzetako sarbide eta autobus-geltokietako babesak; bideetarako itxitura bereziak; saskiak, kirol-ateak, zabuak eta kirol-instalazioetan erabilitako beste material batzuk. Eta aipatutako elementuak konpontzea.
 - Kanpoaldeko konponketak, soldadura behar dutenak.
 - Aginte-koadroak, motorrak eta beste elementu batzuk kontrolatzea eta berrikustea; sistema elektromekanikoetako edozeinen funtzionamenduan izan daitezkeen anomaliak antzematea.
 - Kasuan kasuko huts edo matxuren arrazoiak baloratzea, ondoren, Zerbitzuak bere dituen baliabideekin edo kanpo-enpresen bidez, konpontzeko.
 - Instalazioetako sistema elektrikoetan eta elementu mekanikoetan aurretiaz programatutako eguneroko mantentze-lanak.
 - Ohiko ordutegitik kanpo lan egiteko eta aurkitzeko moduan egotea, ohiz kanpoko eta premiazko lanetarako (udal-hilerrian, kirol-instalazioetan, saneamenduan eta estolderian eta hondartza-zerbitzuan).
 - Ohiko ordutegitik kanpo lan egiteko eta aurkitzeko moduan egotea, aurreko atalean jaso ez diren premiazko matxurak konpontzen laguntzeko.

**B) Eta bereziki:**

- Obra-hondakinak eta bestelako materialak kentzea, languneak libre egon daitezen.
- Materialak nahastu eta botatzea
- Obrarako tresnak eta materialak kargatu eta deskargatzea
- Makineria prestatu eta abian jartzea.
- Obra batean beharrezkoak diren ibilgailuak gidatzea.

Bai eta arduradunek haren kategoria barruan agintzen dioten beste edozein eginkizun ere.

Bigarrenena. — Beharkizunak

Lan-poltsan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

— Inguruabar hauetako bat gertatzea:

- a) Europar Batasuneko herritarra edo bere ezkontidea izatea, zuzenbideak banaturik ez badaude, eta horren ondorengoak eta bere ezkontideak, zuzenbidez banandurik ez badaude eta ondorengoak, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira.
- b) Europar Batasunak izenpeturiko eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzeko eremuaren barnean egotea, langileen zirkulazio askea aplikatu beharra badago itun horietan.
- c) Espainian lan eta bizitzeko baimena duten atzerritarrak.

— 16 urte beteta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako.

— Eskola-ziurtagiriaren edo baliokidearen jabe izatea; edo titulu hori lortzeko eskubideak eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehenago ordaindu izanaren agiria edukitzea.

— Gaitz edo akats fisiko edota psikikorik ez izatea dagozkion zereginei aurre egiteko.

— Diziplinako espediente bidez Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo Tokiko Administrazioetik baztertuta ez egotea eta eginkizun publikoak burutzeko ezgaituta ez egotea.

— Ezintasun edo bateraezintasunaren legeko inongo auzitan sartuta ez izatea; auziok Administrazio Publikoetan diharduten Langileen Bateraezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusita daude.

— Gidabaimena: B1 edo goragokoa.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzean bete behar dira arestian aipaturiko beharkizun guztiak.

Hirugarrena. — Eskabideak

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak elektronikoki formalizatuko dira Udalaren web-orriaren bidez: <https://udala.sopela.eus/empleo-publico/#>. Eskabideotan, izangaiek adierazi beharko dute deialdiaren bigarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

Eskabideak udalburuari zuzenduko zaizkio, eta goian adierazitako bide telematikoa-ren bitartez aurkeztuko dira, 10 egun balioduneko epean, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskabideak, halaber, beste modu honetan ere aurkeztu ahal izango dira, alegia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 16. artikuluan ezarritako moduan.

Onartuak izateko eta, hala denean, lan-poltsan parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek eskabidean adieraztea bigarren oinarrian galdaturiko baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko aipaturiko epearen bukaera-datari dago-



kionez. Eskabideari, hala badagokio, adierazitako merezimenduen zerrenda eta dagozkion egiaztagiria gehituko zaizkio.

Laugarrena. — Izangaiak onartzea

Lan-poltsan parte hartzeko onarturikoen eta bazterturikoen behin-behineko zerrenda argitara emango da Sopelako Udalaren iragarki-oholean, eta 5 egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko eta eskabideak dituen akatsak zuzentzeko.

Erreklamazioak onartu edo baztertu egingo dira bazterturiko izangaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko duen ebazpenean; aurreko atalean ezarritako eran argitaratuko da ebazpen hori.

Behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira berehala erreklamaziorik egon ezean. Behin betiko zerrendak Udalaren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko dira.

Bosgarrena. — Epaimahaia

Karrerako funtzionarioek eta lan-kontratu finkoko langileek eratuko dute epaimahaia, eta titullarrek nahiz ordezkoei osatzen duten mahai horren eraketa osoa argitara emango da onartutako izangaien behin-behineko zerrendarekin batera, Udalaren ediktu-oholean. Epaimahaikideak errekusatu ahal izango dira baldin eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen baldin badira.

Dagokion deia egin ondoren, eratu egingo da Epaimahaia, betiere epaimahaikide gehienak –titullarrak zein ordezkoei– bertan direla.

Epaimahaia eratutakoan, baliozko jarduna izan dezan, kideen gehiengoak –titullarrak zein ordezkoei– hartu behar du parte. Epaimahaiko kide guztiek hizpidea eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, horrek ezin baitu botorik eman. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutakoan gehiengo hartuko dira, eta berdinketarik gertatuz gero, epaimahaiburuaren botoak ebatziko du.

Epaimahaiak ahalmena du agertzen diren zalantzak ebazteko eta oinarri hauetan ezarrita ez dagoenaren inguruko beharrezko erabakiak hartzeko.

Epaimahaiko kideek eskubidea izango dute zerbitzuaren zioz dagozkien ordainak jasotzeko, asistentziak barne, betiere horri buruzko indarreko araudiarekin bat etorritik.

Seigarrena. — Prozesuaren kalifikazioa

Lehiaketaren sistema erabiliko da izangaiak hautatzeko.

Behin betiko sailkapenaren hurrenkera zehazteko, batu egingo dira lortutako puntuazioak.

Epaimahaiak, hirugarren oinarriarekin bat, eskabidearekin batera adierazi eta agiri bidez frogatu diren merezimenduak baloratuko ditu.

MEREZIMENDUAK**A) Esperientzia:**

Esperientzia profesionala administrazio publikoan, deitutako lanpostuaren eginkizun berdinak edo antzekoak dituzten mantentze-peoi edo antzeko lanpostuetan; eta/edo esperientzia profesionala enpresa pribatuan, besteren kontura, erakuntza, igeltserotza, metal-eraikuntza eta/edo iturgintza sektoreetan, peoi edo antzeko kategoriako lanpostuetan, deitutako lanpostuaren eginkizun eta zeregin berdinak edo antzekoak dituztenetan. Egiaztatutako urte bakoitzeko, 4 puntu emango dira, edo, urte osoa ez bada, zati proportzionala; gehienez, 16 puntu eman ahal izango dira.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzualdia egiaztatzeko, administrazio bakoitzak horretarako duen eredia erabiliko da. Nolanahi ere, xehatu beharko dira lan egindako aldiak, eta bertan zehaztu zein kidego edo eskala, azpieskala, klase edo kategoria izan den aldi bakoitzean.



Enpresa pribatuan izandako esperientzia egiaztatzeko, «lan-bizitzaren ziurtagiria» eta langilearen eta enpresaren artean izenpetutako kontratua aurkeztu beharko dira.

Zerbitzuak zatizko lanaldian edo lanaldi murriztuan egin badira, lanaldi osoko zerbitzutzat joko dira puntuazioaren ondorioetarako.

Era berean, zerbitzu aktiboan emandako denbora gisa zenbatuko dira izangaiak genero-indarkeriagatik edo senitartekoak zaintzeagatik borondatezko eszedentzian egon diren denbora-tarte egiaztatuak.

B) Titulazioa:

Metal-eraikuntzen, lorezaintzaren edo iturgintzaren adarretako lehen mailako lanbide-heziketa, oinarritzko mailako teknikaria edo baliokidea izateagatik, betiere peoi-lanpostuan bete beharreko eginkizun eta zereginekin lotuta: 2 puntu.

Eraikuntzaren edo igeltserotzaren adarretako lehen mailako lanbide-heziketa, oinarritzko mailako teknikaria edo baliokidea izateagatik, betiere peoi-lanpostuan bete beharreko eginkizun eta zereginekin lotuta: 4 puntu.

Metal-eraikuntzen, lorezaintzaren edo iturgintzaren adarretako bigarren mailako lanbide-heziketa, erdi-mailako teknikaria edo baliokidea izateagatik, betiere peoi-lanpostuan bete beharreko eginkizun eta zereginekin lotuta: 4 puntu.

Eraikuntzaren edo igeltserotzaren adarretako bigarren mailako lanbide-heziketa, erdi-mailako teknikaria edo baliokidea izateagatik, betiere peoi-lanpostuan bete beharreko eginkizun eta zereginekin lotuta: 8 puntu.

Atal honetan, gehienez, 12 puntu lor daitezke.

C) Prestakuntza:

1. Peoi-lanpostuaren berezko eginkizunekin eta zereginekin zuzeneko zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak: 0,03 puntu egiaztatutako ordu bakoitzeko, eta gehienez 6 puntu.
2. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza-ikastaroak: 0,03 puntu egiaztatutako ordu bakoitzeko, eta gehienez 1,5 puntu.
3. Emakume eta gizonen arteko berdintasunari eta genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza-ikastaroak: 0,03 puntu egiaztatutako ordu bakoitzeko, eta gehienez 1,5 puntu.

Ikastaro guztiak, baliozkoak izateko, administrazio publikoek, zentro ofizialek edo ospe handiko zentroek emanak izango dira.

Atal honetan, gehienez, 6 puntu lor daitezke.

D) Euskara:

- 1. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzeagatik: 1,7 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzeagatik: 3,4 puntu.

Merezimenduak aurkezteko aldia bukatutakoan, sailkapen-hurrenkera ezarriko du epaimahaiak, puntuazio-ordenaren arabera. Lortutako puntuazioak batuz zehaztuko da sailkapeneko ordena hori.

Zazpigarrena. — Puntuazioak argitaratzea eta lan-poltsak egitea

Kalifikazioa amaituta, gainditutako izangaien zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, puntuaziotik handienetik txikienera.

Zortzigarrena. — Lehenatasun-klausula, eta berdinketa apurtzeko irizpideak

Merezimenduak batuta prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen bada, emakumeei emango zaie lehenatasuna.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, azken puntuazioan ere berdinketarik izanez gero, honako irizpide hauek eta ordena erabiliko dira izangaien hurrenkera zehazteko:



1. Esperientziaren atalean puntu gehien lortu duenaren alde.
2. Titulazioen atalean puntu gehien lortu duenaren alde.
3. Prestakuntzaren atalean puntu gehien lortu duenaren alde.
4. Euskararen atalean puntu gehien lortu duenaren alde.

Berdinketak bere hartan jarraitzen badu, hurrenkera alfabetikoa ezarriko da izangaia-
ren lehen abizenaren arabera, W letratik hasita, hala ezartzen baita Funtzio Publikoko
Estatu Idazkaritzaren 2023ko uztailaren 27ko Ebazpenean. Ebazpen horren bidez, argi-
tara ematen da langileak Estatuko Administrazioaren zerbitzura sartzeko araudi oroko-
rean aipatzen den zozketaren emaitza.

Bederatzigarrena. — Probaldia

Lan-poltsa hau erabiliz sortzen diren kontratazioetan 3 hileko probaldiak egingo dira.
Sei hiletik beherako aldi baterako kontratuak direnean, probaldiak ezingo du hilabete
baino gehiago iraun.

Probaren gai izango diren esperientziak idatziz proposatuko dira kontratua izenpe-
tzen den unean, eta Brigadako arduradunak etengabe eta objektiboki ebaluatu beharko
ditu.

Hamargarrena. — Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena izango du agertzen diren zalantzak ebazteko, eta erabakiak
hartu ahal izango ditu hautaketa-prozesua egoki burutzeko oinarri hauetan ezarrita ez
dagoen guztiaren inguruan.

Deialdia, oinarriak eta oinarriotatik eta epaimahaiaren jardunetik eratorritako adminis-
trazio-egintza guztiak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruz-
ko Legean aurreikusitako epe eta moduan aurkatu ahal izango dira.